

begirada

77

abuztua
2020












Photo by Nick Thompson, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Cropped from original

Lege gordailua BI-1163-05

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



AFRIKAR JATORRIKO BIZTANLEAK EAE-N

Begirada honetan, EAEn bizi diren afrikar jatorriko biztanleak aztertu ditugu, eta hala, eguneratuta geratu dira 2013ko azaroan kolektibo horri buruz argitaratutako 51. begiradako datuak.

Ordur geroztik, afrikar jatorriko pertsonen etorrera-erritmoa egonkor mantendu da, eta jatorri hori bihurtu da EAEko atzeritar jatorriko biztanleen jatorri-eremu nagusietako bat. Hala ere, zehaztu behar da begirada honek orain arte eskuragarri dauden azken datuak aurkezten dituela, eta datu horiek oraindik ez dituztela islatzen egungo pandemiak etorreretan eta kolektibo horren egoeran izan dituen ondorioak.


1. Afrikar jatorriko biztanleriaren bilakaera EAEn

2020ko urtarilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) afrikar jatorriko biztanleria 51.359 pertsonakoa zen, hau da, atzerritar jatorriko biztanle guztien % 21,3. 1. grafikoan ikus daitekeen bezala, EAEn migrazio-prozesua hasi zenetik, kolektibo horrek nabarmen egin du gora, eta hainbat fase bereizi dira prozesu horretan. 2001. urtetik 2007. urtera bitartean, afrikar jatorriko biztanleriak gorakada erregularra eta etengabea izan zuen.

Hala ere, 2008tik aurrera, eta 2012ra arte, hazkunde nabarmen handitu zen, 2012an 35.709 pertsonara iritsi arte. Hazkunde hori 2013. eta 2014. urteen artean gelditu zen, EAEko atzeraldi ekonomikoko aldi gogorrenarekin batera. Adierazle ekonomikoen hobekuntzarekin, jatorri afrikarreko pertsonen etorrera suspertu egin da.

1. grafikoa

Afrikar jatorriko biztanleriaren bilakaera EAEn. 2001-2020



Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.


Afrikar jatorriko biztanleriak lurralde historiko bakoitzean duen pisuari dagokionez —2. grafikoa—, ikusten dugu pisu hori nabarmen handiagoa dela Araban. Hala, lurralde horretan bizi diren atzerriar jatorriko 42.617 pertsonetatik 13.221 inguru Afrikako herrialderen batean jaio dira, hau da, atzerrian jaiotako pertsona guztien % 31,0. Arabako datuetatik distantzia handira, Bizkaia da afrikar jatorriko biztanleriaren pisu handiena duen bigarren lurraldea —atzerriar jatorriko pertsona guztien % 19,3—, eta ondoren Gipuzkoa dago —atzerriar jatorriko pertsona guztien % 19,1—.

Eskualde mailan¹, Bilbo Handia (14.892 pertsona) eta Arabako Lautada (10.790) dira afrikar jatorriko biztanleen erakarpen-gune nagusiak, eta, ondoren, Donostialdea (4.229) eta Durangaldea (2.761). Ildo horretan, 2013ko azaroan argitaratutako azken panoramikatik hona, afrikar jatorriko biztanleek beren bizileku-jokabideak partzialki aldatu dituztela ikus dezakegu. 2013an Durangaldea zen hirugarren bizileku-eremua, 2.580 pertsonarekin; gaur egun, berriz, hiriburuen inguruko hiru eskualdeek garrantzia hartu dute, eta Donostialdea nabarmendu da, % 74,3 hazi baita 2013. urtearen aldean.

¹ EINK 2020rako argitaratutako datuak, behin-behinekoak direnez, ez dakarte udalerriei eta eskualdeei dagozkien informazio bereizia. Hortaz, atal honetarako 2019ko maila horretako datu bereiziak erabili dira.


2. grafikoa

Afrikar jatorriko biztanleria atzerriar jatorriko biztanleria osoarekiko, lurralde historikoen arabera. 2020



Iturria: geuk egina, EInren datuak oinarri hartuta.

1. mapa

Afrikar jatorriko biztanleriaren banaketa eskualdeka. 2019

Afrikar jatorriko biztanleriak atzeritar jatorriko biztanlerian duen pisu erlatiboari erreparatuz gero —1. mapa—, pisu erlatibo hori handiagoa da Arabako Errioxan (% 47,6), Markina-Ondarroan (% 37,0), Debabarrenean (% 36,9) eta Arabako Mendialdean (% 36,0). Aldiz, batezbestekoaren (% 21,5) azpitik daude Bidasoa Beherea (% 17,9), Bilbo Handia (% 17,9), Gernika-Bermeo (% 13,6), Plentzia-Mungia (% 13,1) eta Donostia (% 12,6).

Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.

1. taula

Afrikar jatorriko biztanle-kopuru handiena duten udalerriak, probintziak. 2019

Udalerriei dagokienez, Gasteizek du afrikar jatorriko biztanleriaren ehunekorik handiena EAEn, 10.111 pertsona bizi baitziren han 2019ko urtarrilaren 1ean; atzetik dago Bilbo (8.032 pertsona) eta, distantzia handira, Donostia (1.918) eta Barakaldo (1.866). Udalerri horien artean, Maroko da afrikar jatorriko pertsonen jatorrizko herrialde nagusia. Hala ere, ikusten dugu Bilbon bakarrik duela pisu esanguratsua Maroko eta Aljeria ez den beste herrialderen batetik etorritako afrikar jatorriko biztanleriak (% 48,4).

Probintziei dagokienez, Irun (1.533 pertsona) eta Eibar (1.276) dira, hiriburuaren ondoren, afrikar jatorriko biztanleen bizileku nagusiak Gipuzkoan. Bizkaian, Durango (957) eta Sestao (774) dira udalerri nagusiak, Bilbo eta Barakaldoren atzetik. Azkenik, Arabaren kasuan, Gasteizen biltzen dira lurralde horretan bizi diren afrikar jatorriko biztanle gehienak —afrikar jatorriko 10.111 pertsona—, bigarren udalerritik oso urrun: Audio —afrikar jatorriko 407 pertsona—.

ARABA					
Udalerria	Afrika guztira	Afrikarren %, atzer. jat. biztanleekiko	Marokoarrak (%)	Aljeriarrak (%)	Gainerako afrikarrak (%)
Gasteiz	10111	30,3	44,8	17,2	38,0
Laudio	407	33,9	58,2	29,5	12,3
Agurain	298	47,7	60,4	24,2	15,4
Amurrio	294	33,9	62,6	28,2	9,2
Oion	252	57,1	87,7	5,2	7,1
Dulantzi	148	47,3	73,6	12,2	14,2
Iruña Oka	121	37,5	54,5	26,4	19,0
Legutio	95	43,2	74,7	10,5	14,7
Lantziego	81	70,4	74,1	9,9	16,0
Bastida	78	48,4	89,7	5,1	5,1
BIZKAIA					
Udalerria	Afrika guztira	Afrikarren %, atzer. jat. biztanleekiko	Marokoarrak (%)	Aljeriarrak (%)	Gainerako afrikarrak (%)
Bilbo	8032	19,1	42,6	9,0	48,4
Barakaldo	1866	18,9	54,0	7,9	38,1
Durango	957	31,2	27,9	2,4	69,7
Sestao	774	29,9	43,4	6,3	50,3
Santurtzi	732	26,0	52,3	6,4	41,3
Basauri	656	21,3	61,3	5,0	33,7
Ermua	581	45,8	72,8	5,7	21,5
Portugalete	562	18,8	71,5	8,0	20,5
Getxo	439	5,5	60,1	7,3	32,6
Mungia	374	18,6	66,0	2,7	31,3
GIPUZKOA					
Udalerria	Afrika guztira	Afrikarren %, atzer. jat. biztanleekiko	Marokoarrak (%)	Aljeriarrak (%)	Gainerako afrikarrak (%)
Donostia	1918	9,1	58,1	13,5	28,4
Irun	1533	17,7	52,4	10,5	37,1
Eibar	1276	40,8	73,9	5,6	20,5
Errenteria	849	22,6	64,2	9,0	26,9
Arrasate	553	24,9	53,2	16,1	30,7
Azkoitia	482	41,8	63,7	14,7	21,6
Hernani	400	20,8	53,3	14,0	32,8
Tolosa	379	21,2	65,2	6,3	28,5
Azpeitia	364	28,3	67,9	14,8	17,3
Ordizia	350	19,4	38,6	12,0	49,4


Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.

Jatorriaren araberako datuei erreparatzan badiegu —3. grafikoa—, Maroko da EAEn bizi diren afrikar jatorriko pertsonen jatorrizko herrialde nagusia —27.303 pertsona 2020ko urtarrilaren 1ean—, eta ondoren, baina alde handiarekin, Aljeria (5.602) eta Senegal (5.312). Hiruren artean, EAEn bizi diren afrikar jatorriko pertsona guztien % 74,4 osatzen zuten. Biztanle horiek urteetan izan duten bilakaerari dagokionez, Marokok hazkunde bizkorra eta etengabea izan du. Joera hori 2012-2013 aldian baino ez zen gelditu, eta 2014tik aurrera berriro suspertu zen.

Aljeriak, bestalde, goranzko joera izan zuen 2012. urtera arte, orduan 5.521 pertsona bizi baitziren EAEn, eta harrezkero, atzeranzko joera eta hazkunde-urteak tartekatatu ditu. Azkenik, Senegalek etengabe egin du gora 2001etik 2020ra bitartean, eta goranzko joera horri eutsi dio, baita atzeraldi ekonomikoko urteetan ere.

3. grafikoa

Afrikar jatorriko biztanleriaren jatorrizko herrialde nagusien bilakaera EAEn. 2001-2020



Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.


2. Sexuaren eta adin-taldean arabera banaketa

Sexuen arabera —4. grafikoa—, afrikar jatorriko kolektiboa nabarmentzen da EAEn bizi den atzeritar jatorriko biztanleen artean, gehiengo maskulinoa duelako (% 63,1), oreka orokorrekin alderatuta (% 52,5). Jatorrizko herrialdeei dagokionez, joera hori hiru herrialde nagusien artean mantentzen da, baina ez intentsitate berarekin. Hala, Marokoren (% 62,4) eta Aljeriaren (% 61,7) kasuan, afrikar jatorriko pertsonen maskulinizazio-maila antzekoak dituzte; Senegalen kasuan, berriz, ehuneko hori handitu egiten da, % 82,6ra iritsi arte.

Adinaren arabera banaketari dagokionez —5. grafikoa—, atzeritar jatorriko biztanleak nahiz afrikar jatorriko biztanleak gazteak dira gehienbat. Izan ere, atzeritar jatorriko eta afrikar jatorriko biztanleen % 48,2k eta % 54,6k, hurrenez hurren, 25 urtetik 44 urtera bitartean dituzte. Sexuen arabera, atzeritar jatorriko biztanleek nolabaiteko oreka erakusten dute bi sexuen artean adin-tarte bakoitzean, afrikar biztanleek ez bezala, gehienak gizonezkoak baitira 15-59 urteko adin-tartean.

4. grafikoa


Atzeritarren, afrikarren eta jatorrizko herrialde nagusietako biztanleriaren banaketa, sexuaren arabera (%).2020



Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.

5. grafikoa

Atzeritar jatorriko eta afrikar jatorriko biztanleriaren piramidea EAEn. 2020




Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.

3. EAEn bizi diren afrikar jatorriko biztanleen lan-egoera

Lan-arloari dagokionez, EAEn bizi diren Afrikako nazionalitateko² pertsonen jarduera-tasa (landunak gehi langabeak) % 60,7 da; ehuneko hori atzeritarren batezbestekoa baino handiagoa da (% 58,6). Era berean, afrikar biztanleen langabezia-tasa nabarmen handiagoa da atzeritar guztiena baino (% 25,3 eta % 14,0, hurrenez hurren), eta ez-aktiboen tasa batezbestekoa baino txikiagoa da (% 39,3).

6. grafikoa

Atzeritarren eta afrikarren lan-egoeraren eta sexuaren arabera 2019



Iturria: geuk egina, Eustaten datuak oinarri hartuta.


² EINK emandako datuak ez bezala, Eustatek eta Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako datuek atzerriko nazionalitatearen aldagaia hartzen dute kontuan, Begiradan erabilitako atzeritar jatorriaren aldagaia hartu beharrean.

Sexuen arabera datuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu desberdintasun nabarmenak daudela Afrikako nazionalitatea duten gizon eta emakumeen artean. Gizonen kasuan, landunen tasa (% 41,5) emakumeena (% 24,6) baino nabarmen handiagoa zen. Beste muturrean, datuek adierazten dute langabezia-tasa handiagoa dela afrikar emakumeen artean (% 33,2) gizonen artean baino (% 20,8).

Lan-afiliazioari buruzko datuei dagokienez —7. grafikoa—, EAEn bizi diren Marokoko nazionalitateko pertsonen artean lan-erregimen nagusia erregimen orokorra da (pertsona guztien % 83,6); azken horretatik oso urrun, marokarren % 16,1 norberaren konturako langileen erregimenean alta emanda daude. Alde horretatik, ez dugu alde nabarmenik ikusten Marokoko nazionalitatea duten biztanleen eta enplegatutako atzeritarren artean.

7. grafikoa

Atzerriko eta Marokoko nazionalitateko biztanleria, Gizarte Segurantzako erregimenaren arabera. 2020ko maiatza



Iturria: geuk egina, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.


4. Bertako biztanleek afrikar jatorriko pertsonen buruz duten pertzepzioa

Ikuspegiaren 2019ko Barometroaren datuen arabera, Saharaz hegoaldeko biztanleria begi onez ikusten dute bertako biztanleek —8. grafikoa—, 0tik 10erako eskalan. Urte horretan, puntuazioa 6,2 puntukoa zen, batezbestekoaren gainera (6,1). Bestalde, magrehtar jatorriko biztanleriak 5,0 puntu lortu ditu, eta jatorri hori da bertako biztanleriaren begikotasun-eskalan notarik baxuena erakusten duena.

Bilakaerari dagokionez —9. grafikoa—, ikusten dugu 2013az geroztik hobetu egin dela bai atzeritar jatorriko pertsonen pertzepzioa, oro har, bai aztertutako afrikar bi jatorreko pertzepzioa. Alde horretatik, Saharaz hegoaldeko afrikar jatorriko biztanleriari batezbestekoa baino puntuazio pixka bat altuagoa eman zaio, eta magrehtar jatorriko biztanleriak, berriz, puntuazio baxuena jaso du erregulartasunez; dena den, puntuazio hori nabarmen hobetu da azken urteetan, eta dagoeneko 5 puntu lortu ditu.


8. grafikoa

Atzeritar jatorriko biztanleekiko begikotasun-maila, jatorrizko herrialdearen arabera. 2019



9. grafikoa

Magrehtar jatorriko eta Saharaz hegoaldeko jatorriko biztanleriarekiko begikotasun-mailaren bilakaera. 2007-2019



Iturria: Ikuspegi.

Iturria: Ikuspegi.

Ondorioak

- Migrazio-prozesua hasi zenetik, EAEn bizi diren afrikar jatorriko pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora, 2020an 51.359 pertsonara iritsi arte. Gehienak Marokotik, Aljeriatik eta Senegaletik etorri dira.
- Araban du afrikar jatorriko biztanleriak pisu handiena —atzeritar jatorriko pertsona guztien % 31,0—, eta, ondoren, Bizkaian eta Gipuzkoan. Bestalde, Gasteiz eta Bilbo dira jatorri horretako pertsona-kopuru absolutu handiena duten udalerriak.
- Afrikar jatorriko biztanle gehienak gazteak dira. Gainera, atzeritar jatorriko biztanleria osoarekin alderatuta, afrikar jatorrikoak nagusiki gizonezkoak dira (% 63,1).
- Lan-arloan, afrikar jatorriko biztanleriaren jarduera-tasa atzeritar guztiena baino handiagoa da, eta langabezia-tasa ere nabarmen handiagoa da.
- Euskal gizarteak begi onez ikusten du Saharaz hegoaldeko komunitatea (6,2) eta magrebtarrek nahiko bat lortu dute (5,0). Horrela, azken urteetan bi taldeekiko begikotasun-maila nabarmen handitu da.

EAE 2020	51.359 pertsona afrikar jatorrikoak	atzeritar jatorriko biztanle guztien % 21,3
---------------------	--------------------------------------------------	----------------------------------------------------------

Jatorri nagusiak	
% 74,4	Maroko, Aljeria eta Senegal

Lan merkatua	
Jarduera-tasa % 60,7	Biztanleriaren batez besteko tasa baino handiagoa